

Heziketa afektibo-sexuala eskolan

Autor: Zabaleta Arangoa, Maider (Licenciada en Psicología, Graduada en Educación Primaria).

Público: Educación. **Materia:** Educación. **Idioma:** Euskera.

Título: Heziketa afektibo-sexuala eskolan.

Resumen

Tradizioz, sexualitatearen kontzeptua ugaltzarekin oso lotuta egon izan da, eta ondorioz, ugalkortasunaren etapara mugatua. Egun, heziketa sexuala ezagutza biologiko hutsean oinarritzen lantzen da gehien bat, natur zientzien ikuspegitik, edo tutoretzatik. Azken honetan, hainbat gai lantzen ditugu: bizikidetzeta, jazarpena, drogomenpekotasuna, pertsonen arteko harremanak, emozioak ... inongo beldurrik gabe baina, sexualitatea landu behar dugunean, ikastetxe askotan kanpoko erakunde batetako espezialistak kontratatzen dira gure lan-eginkizunen barne dagoen gai bat jorrazteko, gehienetan informazio hutsean eroriz. Guraso, irakasle edo orientatzaileok ez dugu gure burua gai ikusten sexualitatea lantzeko?

Palabras clave: Heziketa sexuala, tutoretza, sexualitatea.

Title: Affective-sexual education in school.

Abstract

Traditionally, the concept of sexuality has been closely linked to the proliferation, and consequently the limited stage of fertility. Nowadays, sexual education is basically based on purely biological knowledge, from the perspective of natural sciences, or from tutoring. In this case, we focus on issues such as coexistence, harassment, drug dependence, interpersonal relationships, emotions... without fear, but when we need to practice sexuality, many specialists in an organization are hired to address an issue that is part of our work, mostly dropped in vacant information. Do parents, teachers, or counselors not see ourselves capable of developing sexuality?

Keywords: Sexual education, tutoring, sexuality.

Recibido 2017-11-08; Aceptado 2017-11-14; Publicado 2017-12-25; Código PD: 090039

Tradizioz, sexualitatearen kontzeptua ugaltzarekin oso lotuta egon izan da, eta ondorioz, ugalkortasunaren etapara mugatua. Kontzeptu honek gozamina edo sexu-atsegina adierazten zuen ere, baina oso modu mugatuan eta zentsuratuan, bereziki emakumeentzat.

Gaur egun, *sexualitatearen kontzeptua aldatzen ari da*, orokorragoa den ikuspegi batetara abiatzen ari baikara: gizakien harremanetarako eta komunikatzeko gaitasuna, sentimenduak eta desioa izateko gaitasuna, afektua, laguntasuna ... alderdi guzti hauek osatzen dute sexualitatearen kontzeptua, eta ez bakarrik sexu-harremanak.

Urteetan zehar sexualitatea gai *tabu* bat izan da, eta gaur egun askotan oraindik halaxe izaten jarraitzen du, familietan, eskoletan edo institutuetan, hainbatetan "ihes egiten" dugulako gai hau jorrazteko behar denean: kanpoko erakunde edo elkarteetan esku uzten dugu aunitzetan, zaila iruditzen baitzaigu gai hauek ikasleekin lantzea.

Egun, heziketa sexuala ezagutza biologiko hutsean oinarritzen lantzen da gehien bat, natur zientzien ikuspegitik, edo tutoretzatik. Azken honetan, hainbat gai lantzen ditugu: bizikidetzeta, jazarpena, drogomenpekotasuna, pertsonen arteko harremanak, emozioak ... inongo beldurrik gabe baina, lehen aipatu dugun bezala, sexualitatea landu behar dugunean, ikastetxe askotan kanpoko erakunde batetako espezialistak kontratatzen dira gure lan-eginkizunen barne dagoen gai bat jorrazteko, gehienetan informazio hutsean eroriz. Guraso, irakasle edo orientatzaileok ez dugu gure burua gai ikusten sexualitatea lantzeko?

Gure ustez, sexualitatea tabu bat izatetik eta informazio eza nagusi zelarik, orain *kontrako muturrera* pasatu gara. Izugarriko informazioa dute ikasleek hainbat gauzei buruz: antisorgailuak, sexu transmisiozko gaixotasunak ... baina sexualiterako ez ditugu hezitzen, aukera ezberdinen informazio hutsean gelditzen ari baikara hain zuzen ere.

Beraz, hezkuntzaren hurrengo erronka ikasleei sexu-heziketa egoki bat ematea izan beharko luke, baina heziketa afektiboa ahaztu gabe: askotan sexu-heziketaz hitz egiten dugunean, ahaztu egiten dugu **afektibitatea sexualitatearen**

zati garrantzitsua dela (afektibitatea amodio, maitemintze, maitasun, laztan, samurtasun, erotismo, intimitate... bezala ulertua).

Aurrekoa kontuan hartuz, kontutan hartuko dugu orduan, sexu-heziketa oso **kontzeptu zabala**enez, *arlo biologikora soilik ezin dugula murriztu*, **harreman afektiboak, gizakien arteko harremanak, identitate sexual propioa ezagutzea, genero berdintasuna... kontzeptuaren barne daudelarik**. Hau guztia laburbilduz, sexu-heziketaren barruan landu beharreko arloak hauek dira: **biologikoa, kulturala, soziala, afektiboa, sexuala, morala eta psikologikoa**.

Heziketa sexuala aurrera eramateko, ezinbestekoa da programa berezi bat diseinatzea eskoletan, sexu-heziketa hainbat modutan lantzen duen programa bat izan beharko luke.

Zentro batzuetan Sexualitatearen Txokoa edo Bitartekaritza Sexuala martxan jarri dute. Modu honetan, ikasleek beharrezkoa sentitzen dutenean, sexualitateari buruzko zalantzak, emozioak, beldurrak edo kezak argitzen dira.

Gaur egun, nerabeek informazio gehiegi dutela planteatzen da askotan, baina lehen aipatu dugun bezalaxe, sexualitatearen inguruan oraindik tabu handia dagoenez, ikasleak beldur dira edo lotsa ematen die honi buruz guraso edo irakasleekin hitz egitea. Horregatik, kideekin solastea errazago egiten zaie. Hori dela eta, Sexualitatearen Txokoaren bidez, sexualitatea lantzen da ikasle talde batekin, gaian formazioa jasotzen dute, gero hauek beste ikasleei lagundu ahal izateko helburuarekin.

Lehenik eta behin, ikastetxe mailan Heziketa Afektibo - Sexualaren inguruko proiektu bat garatzea da garrantzitsua, non irakasle eta ikasleen inplikazioa funtsezkoa den. Horretarako proiektua ikasle, irakasle eta familiei luzatu beharko zaie. Ondoren, proiektua martxan jarri beharko litzateke eta berau ebaluatu.

Proiektua aurrera eramateko, ikastetxe guztia inplikatu behar da, Poliki-poliki ikastetxean zabaltzea da helburua. Sexualitatearen bitartekaritza hau, ikasle talde mugatu batek osatu beharko luke, talde haundiek koordinazioa eta parte-hartze aktiboa neurri batean oztopatzen dutelako.

Formakuntza praktikoa ere jasoko lukete ikasle hauek, ezagutza teorikoak kasu eta arazo konkretuetara aplikatzeko. Prozesu honetan, emandako soluzioak, lortutako emaitzak eta zalantzak aztertu beharko lirateke.

Proiektu hau diseinatzerakoan, hainbat baliabideen pertsonalen parte hartzea beharrezkoa da, hala nola, Zuzendaritza taldearena, eskola kontseiluarena, irakasleena, orientatzailearena, gurasoena, Osasun zentroko profesionalena eta kanpoko erakundeetako beste hainbat profesionalena.

Programa aurrera eramanean ahal izateko, eman beharreko pausoak asko dira. Lehenengo, programa bera diseinatu. Behin programa osatu ondoren, Zuzendaritza taldeari aurkeztu. Ondoren, Eskola Kontseiluan aurkeztu beharko litzateke programa. Hurrengo pausua, irakasle-taldeari programa bera azaltzea litzateke. Behin programa azaldu ondoren, kanpoko erakunde profesional baten laguntzarekin formakuntza antolatu beharko litzateke. Gero, bitartekari sexualen taldea osatzea beharrezkoa da. Ikasle bitartekariak aukeratu ondoren, hauen gurasoak informatu eta baimena eskatu behar da.

Bitartekari taldea osatu ondoren eta baimena jaso ondoren, ikasle hauek formatu beharko dira. Ordutegi bat finkatu beharko da ere, helbide elektronikoa bat lortu, taldeari izan bat jarri eta ikastetxeko gela bat prestatu bitartekaritza sexualaren txokoa aurrera eramanean ahal izateko.

Ikastetxeko gainontzeko ikasleei programa eta parte hartze prozesua helarazi baino lehen, bitartekari taldearekin simulazioak eginen dira. Taldeko ikasle batzuk "bisitariak" balira bezala jokatu dute, taldeko bertze ikasle batzuk beraien "premiei" erantzuten dieten bitartean. Ondoren, gertatutakoa aztertuko da, hausnarketa batekin bukatuz.

Aholkularitza konfiantzazko giro batean garatzen erakutsiko zaie, tolerantzia eta errespetua mantenduz.

Sexualitatearen txokoa guztiz antolatuta egon ondoren, ikastetxeko bertze ikasleei helaraziko zaie. Honetarako, dibulgaziozko liburuxkak eta horma-irudiak ikastetxean banatu eta jarriko dira. Gelaz-gela aurkezpena egingo da. Aurkezpen honetan txokoaren funtzionamendua azalduko da, eta noiz eta zertarako jotzen ahal duten Txoko honetara. Ondotik, DVD bat erakutsiko zaie, non lehendabiziko harreman sexualak eta antisorgailuen erabilpena aurkezten diren.

Ezinbestekoa da bitartekari taldearekin bilerak egitea orientatzailearekin edo irakasle arduradunarekin. Zehaztu beharko litzateke bilera hauen maiztasuna. Helburua prozesuaren jarraipena egitea eta behar den laguntza ematea da, baita zalantzak argitzea ere.

Irakasle talde arduradunak eta orientatzaileak heziketa afektibo-sexuala eta hezkidetzari buruzko tutoretza saioetarako materialak prestatuko dituzte, Tutoretza Planaren barruan sartzeko.

Azkenik, aipatu behar da programaren ebaluazioaren garrantzia. Jarduera, eduki, eta programa bere osotasunean baloratu behar da, ikasturte guztian zehar jarraipena eginik. Honi esker programak etengabeko eboluzioa izanen luke.

Bibliografía

- Birraux, Annie. (2007): *El adolescente frente a su cuerpo*. Abisal. Bartzelona.
- Gomez Zapiain, A. (2004): *Sexualitate eta afektibitatea atzerapena duten pertsonengan. Jokaera jarraibideak*. Atzegi. Donostia.
- H. Harris, R. (1997): *Sexo... ¿qué es?* Serres. Bartzelona.
- López Sanchez, F. (1995): *Educación sexual de adolescentes y jóvenes*. S. XXI. Madrid.
- Mitjans Lafont, L. (2005): *Sexualidad y educación sexual en adolescentes*. I reunión anual de la Asociación Española de Pediatría de Atención Primaria. Murcia.
- V.V.A.A.: *Gelan ere sexu osasuna bultzatuz*. Nafarroako osasun zerbitzua. Iruña.